

Lucia Azkuenaga Iturbe
Amorebieta-Etxano, Bizkaia (1920)

Aurkibidea

Biografia

1920. urtean munduratu zen San Migel auzo inguruko Derandain baserrian. Aita Lemoakoa zuen eta ama Igorrekoa. Senarra ere zornotzarra zuen eta haren baserrira ezkondu zen, Obenera. Durangoko Santa Susanako mojetan ikasi zuen umetan, eta gerora, Bilbora joan zen mekanografia ikastera. San Migeleko eskolan maistra moduan ibili zen gerraostean eskolarik egon ez zen sasoian; hilabeteen 7 pezeta jasotzen zituen. Antzinako San Migeleko eta Zornotzako kontu ugari dakartza gogora 1988. urtean "Zornotzako aditz-eren karinkara" libururako egindako grabazio honetan.

Zintak

AMO-082

- **Proiektua:** Zornotzako aditz-eren karinkara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zelaieta Gerediaga, Luis Mari
- **Data:** 1988-08-09
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** CD

- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar
- **Emalea:** Amorebieta-Etxanoko Udala

Pasarteak

1. Beti bizi izan da Zornotzan

- **Erref:** AMO-082/003
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:03:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

San Migel auzo inguruko Derandain baserriakoa da Lucia. Aita Lemoakoa zuen eta ama Igorrekoa.

2. Bilbon idazkaritzako ikasketak egin zituen

- **Erref:** AMO-082/005
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:03:31. **Bukatu:** 00:04:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Aita "ferroviarioa" zenez, treneko tiketak dohainik izaten zituzten. Durangon ikasi zuen mojetan eta gero Bilbon, idazkaritzako ikasketak egin zituen. Oso azkar hasi zen lanean mekanografa bezala.

3. Gerraosteko maistra San Migelen I

- **Erref:** AMO-082/006
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:04:15. **Bukatu:** 00:06:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Gerraostean, San Migel auzoko haurrek Zornotzara edo Bernagoitiara joan behar izaten zuten eskolara. Orduan, Lucia San Migelek klasean ematen hasi zen. Ume askoren maistra izan zen. Soldata baxua zen baina janari asko eramaten zioten haurrek.

4. Gerraosteko maistra San Migelen II

- **Erref:** AMO-082/007
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:06:29. **Bukatu:** 00:07:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra garaian eskola falta izan zutenak, Luciarengana joan ziren goi-eskolak jasotzera. Denak gogoratzen dira berataz.

5. Garai bateko jaiak askoz hobeagoak ziren

- **Erref:** AMO-082/008
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:07:38. **Bukatu:** 00:09:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

San Migeleko jaietan beti elkartzen dira auzoan eta aspaldian ikusi ez duen jendearekin egoten dira. Gaur egun jaiak askoz politagoak direla uste du. Txistua, aurrekua, soinua eta panderoa... egoten ziren. Iluntzen zuenean, jaia bukatu eta etxera joaten ziren.

6. Emakumezkoak ez ziren tabernara sartzen

- **Erref:** AMO-082/009
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:09:36. **Bukatu:** 00:10:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

San Migelen taberna bat zegoen eta jaietan zabalik egoten zen. Emakumeak erromerian egoten ziren eta mutilak tabernan. Emakumezkoak ez ziren tabernetara sartzen.

7. Jaietan gonbidatuak izaten zituzten

- **Erref:** AMO-082/010
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:10:32. **Bukatu:** 00:12:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Jaietan gonbidatuak izaten zituzten baserrian. Jateko, babarrun edo garbantzu-zopa azarekin, okela gisatua eta arroz-esnea izaten zen.

8. Mezara eta konfesatzera derrigor joan behar

- **Erref:** AMO-082/011

- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:12:06. **Bukatu:** 00:13:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Gabon zaharrean, afaldu eta lagunekin Larra auzora joaten ziren oinez, gauerdiko mezara. Konfesatzera ere bi astetik behin joan behar izaten zuten.

9. Garai bateko gaur egungo bizimodua

- **Erref:** AMO-082/012
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:13:34. **Bukatu:** 00:14:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Garai bateko eta gaur egungo bizimodua eta bizitzarako ikuspegia.

10. Baserriko lanak eskuz; eguraldiarentzat errituak

- **Erref:** AMO-082/013
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:14:31. **Bukatu:** 00:15:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Baserriko lanak eskuz egiten ziren, adibidez garia jotzea. Makinaria sartu zenean alde ederra nabaritu zuten. Klima aldatu egin dela dio. Garai batean, txingorraren kontrako errituak egiten ziren.

11. Igandean mezara ez joatea bekatu zen

- **Erref:** AMO-082/014
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:15:39. **Bukatu:** 00:16:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Igandean mezara ez joatea bekatu handia zen. San Miguelen goizeko 10etan izaten zen meza. San Migel asko aldatu da eskolarengatik (Lauaxeta Ikastola).

12. San Miguel Dudeako euskara

- **Erref:** AMO-082/016

- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:16:58. **Bukatu:** 00:17:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

San Migeleko euskararen eta Zornotzako beste auzoen arteko euskara ezberdina da. Adibidez, Bernakoa ezberdina da.

13. Euskararen ezagutza handitu da

- **Erref:** AMO-082/017
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:17:56. **Bukatu:** 00:19:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskararen erabilera eta batez ere ezagutza, handiagoa da gaur egun. Kanpotarren seme-alabek euskaraz dakite Zornotzan.

14. Euskara batuko hitz asko ulertzeko zailtasunak

- **Erref:** AMO-082/018
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:19:12. **Bukatu:** 00:20:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskara batuak gipuzkeraren antza gehiago duela uste du eta batzuetan hitz asko ez ditu ulertzen.

15. Zornotza asko handitu da

- **Erref:** AMO-082/020
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:22:14. **Bukatu:** 00:23:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura

Laburpena:

Garai batean denda gutxi zeuden Zornotzan. Gaur egun, dendak eta tabernak daude nonnahi, jende asko dago herrian, etxebizitza garestiak eraikitzen dira...

16. Euskararen erabilera handitzen ari da

- **Erref:** AMO-082/021
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:23:24. **Bukatu:** 00:24:40

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Frankismoan euskara debekatuta egon arren, hitz egiten zen. Gero, lantegiak hasi zirenean eta jende berria heldu zenean, euskararen erabilera nabarmen jeitsi zen. Gaur egun, berriro ere indartzen ari da et parkeetan umeei asko entzuten die euskaraz hitz egiten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com